ZARAUZKO UDALA

ZERBITZU KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA		PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS DE CONTRATO DE SERVICIO
LAN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ZERBITZUA **2025IK200009**		**SERVICIO PARA PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES** **2025IK200009**
1.- KONTRATUAREN XEDEA Kontratu honen xedea da kanpoko prebentzio zerbitzua ematea. Prebentzioaren hurrengo espezialitateak sorta bakarrean sartuko dira: -Laneko Medikuntza (Osasun Zaintza) -Laneko segurtasuna eta larrialdi-planak. -Higiene industriala -Ergonomia eta psikosoziologia aplikatua Zerbitzu horren bidez, gainera, aholkularitza eta laguntza teknikoa emango zaio Udalari, honako lege hauetan aurreikusitako funtzioak bete ditzan: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentziokoa (31.3 artikulua) eta horrekin bat datorren gainerako araudia. Zerbitzu hori aurrera eraman ahal izateko, urteko lan-plana idatzi behar da espezialitate bakoitzean, eta plan hori Segurtasun eta Osasun Batzordeari aurkeztuko zaio urte hasieran. Horrez gain, Zarauzko Udalean egindako jardueren urteko memoria ere idatziko da (genero ikuspegitik egindako azterketa sartuta). Zarauzko Udalaren kudeaketa-sistema orokorrean laneko arriskuen prebentzioa sartzeak zenbaterainoko eragina izan duen baloratuko da memoria horretan. Ekitaldi bakoitzaren amaieran aurkeztuko da memoria hori. Halaber, urteko lan-planean eta memorian datuak sexuka jaso beharko dira. Zarauzko Udaleko langile kopurua 2025eko martxoan, gutxi gorabehera: 220. A) OSASUN ZAINTZA Adjudikaziodunak osasun zaintzako		**1. OBJETO DEL CONTRATO** El objeto de este contrato es prestar en un único lote el servicio de prevención ajeno en las siguientes especialidades preventivas: -Medicina del Trabajo (Vigilancia de la Salud) -Seguridad en el trabajo y planes de emergencia. -Higiene industrial -Ergonomía y psicosociología aplicada. La prestación de este servicio implicará el asesoramiento y apoyo técnico necesario que el Ayuntamiento de Zarautz precise para el cumplimiento de las funciones previstas en el artículo 31.3 de la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales y demás normativa concordante. La prestación de este servicio conlleva la obligación de redactar un plan de trabajo anual en cada una de las especialidades que se presentará al Comité de Seguridad y Salud a comienzos de año; así como la redacción de una memoria anual (que incorpore un análisis desde la perspectiva de género) de las actividades desarrolladas en el Ayuntamiento de Zarautz que incluirá una valoración de la efectividad de la integración de la prevención de riesgos laborales en el sistema general de gestión de aquél y que se presentará al final de cada ejercicio. Asimismo, en el plan de trabajo anual y en la memoria deberán constar los datos por sexo. Personal del Ayuntamiento de Zarautz en marzo de 2025 aproximadamente: 220. A) VIGILANCIA DE LA SALUD Con la información disponible en el Ayuntamiento

proiektua egingo du, Udalean dagoen informazioarekin eta adjudikaziodunak bere antolakuntzan jarrita daukan datu-bilketen sistemaren bidez lortzen duenarekin. Hor jasoko ditu: a) enpresan dauden lanpostuak; b) lanpostu bakoitzaren arriskuak; c) lanpostu bakoitza zer langilek betetzen duen; d) eta langile bakoitzari aplikatu beharreko protokolo mediko espezifikoak (probak ere sartuta).		y la que recabe la empresa adjudicataria conforme a los sistemas de recogida de datos que tenga implementados en su organización, elaborará un proyecto de vigilancia de la salud en el que habrá de recoger los puestos existentes en la empresa; los riesgos de cada puesto; el personal que ocupa cada puesto y los protocolos médicos específicos, con las pruebas correspondientes, a aplicar a cada persona trabajadora.
Arriskuen ebaluazioan kontuan edukiko du sexuen araberako datuen desagregazioa, lan-arloko segregazio horizontala eta bertikala eta genero-adierazleak sartuko ditu, egonez gero.		En la evaluación de riesgos tendrá en cuenta la desagregación de datos por sexos, la segregación horizontal y vertical en el ámbito laboral e incorporará, en su caso, los correspondientes indicadores de género.
Osasun azterketen eta hitzordu-egutegiaren urteko programazioaren arabera egingo da osasun zaintza. Adjudikaziodunak eta Giza Baliabideetako Departamentuak elkarrekin koordinatuta egingo dute programazio hori.		La actividad de Vigilancia de la Salud se llevará a cabo conforme a una programación anual de exámenes de salud y calendario de citaciones que coordinará con la empresa adjudicataria el Departamento de Recursos Humanos.
Osasun azterketa motak:		Tipos de exámenes de salud:
1.Hasierako mediku-azterketak: langilea lanean hasten denean. Langilearen hasierako osasun-egoera aztertuko da, ikusteko a) ea egokia den egin behar duen lanerako; b) ea ezgaitasun-irizpideren bat duen, indarrean dauden protokoloen edo/eta araudiaren arabera; c) ea langile bereziki sentsible gisa definitu behar den, d) eta zehazteko ea lanpostuan egokitzapenak egin behar diren.		1.Reconocimientos médicos iniciales: a la incorporación de la persona empleada. Evaluación del estado de salud inicial de la persona y si es adecuada para las tareas que va a desarrollar; si presenta algún criterio de ineptitud según protocolos y/o normativa vigente; si es susceptible de ser definida como persona trabajadora especialmente sensible y determinar la necesidad de adaptación del puesto de trabajo.
2.Mediku-azterketak, zereginak nabarmen aldatzeagatik: arrisku erantsirik dagoen baloratzeko.		2.Reconocimientos médicos por modificación sustancial de tareas: para valorar la existencia de riesgo añadido.
3.Aldizkako mediku-azterketak: aplikatu beharreko osasun-protokoloen araberakoa izango da maiztasuna, baina, orokorrean, urtean osasun-azterketa bat egingo zaie langile guztiei.		3.Reconocimientos médicos periódicos: la periodicidad vendrá marcada por los protocolos médicos aplicables, si bien, con carácter general, el conjunto del personal trabajador pasa un reconocimiento anual.
4.Luzaroan lanetik kanpo egon ondoren berriro lanean hastean egiten diren osasun azterketak: ez etortzearen arrazoia ikertu, jatorri profesionala izan ote duen jakiteko, eta postuan egokitzapenak egin behar diren		4.Reconocimientos por reincorporación al trabajo tras ausencias prolongadas: investigar causa de la ausencia a fin de descubrir eventual origen profesional, así como valorar si deben realizarse adaptaciones en el puesto.

baloratu.		
Azken hiru ekitaldietako datuen arabera, **Osasun Zaintza zerbitzuak urte bakoitzeko artatutako langileen batez bestekoa: gutxi gorabehera 160 langile.**		Según datos de los últimos tres ejercicios, la media de **personas trabajadora atendidas por el Servicio de Vigilancia Sanitaria por año: aproximadamente 160 personas trabajadoras**
Osasun azterketen edukia:		Contenido de los exámenes de salud:
Osasun azterketan honako proba hauek egingo dira **gutxienez:**		Los reconocimientos médicos incluirán **como mínimo** las siguientes pruebas:
1.Laneko historia klinikoa -Laneko anamnesia. Bertan jasoko dira lanpostuaren deskribapen zehatza, lanpostuan emandako denbora, lan baldintzen analisian atzemandako arriskuak eta hartutako prebentzio neurriak. -Anamnesi pertsonala.		1.Historia clínico-laboral: -Anamnesis laboral en la que se hará constar una descripción detallada del puesto de trabajo, el tiempo de permanencia en el mismo, los riesgos detectados en el análisis de las condiciones de trabajo, y las medidas de prevención adoptadas. -Anamnesis personal.
2.Azterketa fisikoa: neurologikoa; kardiobaskularra; ohitura toxikoak; arnas aparatua, abdominala eta osteoartikularra: lanpostu guztiei egingo zaien azterketa hori arriskuen eta/edo protokoloen arabera osatuko da (tonometria, Epworth-en testa, Jaegger-en testa, etab.).		2.Exploración física: neurológica; cardiovascular; hábitos tóxicos; aparato respiratorio, abdominal y osteoarticular; este reconocimiento común a todos los puestos de trabajo se cumplimentará con lo específico y necesario en función de los riesgos y/o protocolos (tonometría, test de Epworth, test de Jaegger, etc.).
3.Azterketa osagarriak: audiometria; otoskopia; ikusmenaren kontrola; ikusmen kromatikoa; pisua eta garaiera; elektrokardiograma; presio arteriala. Aplikatu beharreko protokoloen arabera, honako hauek egingo dira: espirometria; tonometria; torax, sudur sinu eta lunbarretako erradiologia, eta abar.		3.Exploraciones complementarias: audiometría; otoscopia; control de visión; visión cromática; peso y talla; electrocardiograma; tensión arterial. Según protocolos aplicables se deberán realizar: espirometría; tonometría; radiología de tórax, de senos nasales y lumbares, etcétera.
4.Odol eta gernu analisiak: honako hauek sartuko dira gutxienez: -ODOLA: Hematieen eta leukozitoen zenbaketa, hematokritoa, hemoglobina, leukozito formula, V.S.G. eta Katz Indizea, VCM, HCM, CMHC eta plaketak. Burdinaren analisia (FE) emakumeei. -BIOKIMIKA: Glukosa, kreatina, azido urikoa, kolesterola (HDL, LDL,TRIGLIZERIDOAK, INDIZE ATEROGENIKOA), GOT, GPT eta GGT. -GERNUA: Ph, proteinak, glukosa, gorputz zetonikoak, urobilinogenoa, bilirrubina eta		4.Analítica de sangre y orina: que comprenda, por lo menos, los siguientes aspectos: -SANGRE: Recuento de hematíes y leucocitos, hematocrito, hemoglobina, fórmula leucocitaria, V.S.G. e Índice de Katz, VCM, HCM, CMHC y plaquetas. Análisis de hierro (FE) para mujeres. -BIOQUÍMICA: Glucosa, creatina, ácido úrico, colesterol (HDL, LDL,TRIGLICERIDOS, INDICE ATEROGENICO), GOT, GPT y GGT. -ORINA: Ph, proteínas, glucosa, cuerpos cetónicos, urobilinógeno, bilirrubina y sedimento urinario.

gernu sedimentua. -TUMOREEN MARKATZAILEAK (45 urtetik gorako gizonei): PSA -Txertaketak: A eta B hepatitisak, tetanosa (txertoen egutegiaren arabera). Beharrezkotzat jotzen diren txertoak, maiatzaren 12ko 664/1997 Errege Dekretuaren 8. artikuluko 3. puntuan ezarritakoaren arabera. Dekretu hori langileak lanean agente biologikoen eraginpean egotearen arriskuetatik babesteari buruzkoa da. 5.Gainera, honako hauek egingo ditu adjudikaziodunak: -Analisi bereziak langile kolektibo jakin batzuei. Udalarekin adosten diren protokolo espezifikoetan finkatuko dira horiek, lanpostu bakoitzaren arrisku mailaren arabera. Honelakoak izango dira analisi horiek: B hepatitisaren analisia (Anti HBsAg; Ac HBs; Ac HBc) VIH markatzaile birikoak eta analisi toxikologikoak -Langile bakoitzari ematen zaion osasun-txosten konfidentzialean, honako hauek jasoko dira: probetan lortutako emaitzak eta, gainera, detektatutako asaldurak, osasuna zaintzeko aholkuak eta gomendioak, eta langileari komeni ote zaion espezialista jakin batzuengana joatea. -Jaso eta zaindu egingo ditu osasun-zaintzako zerbitzuaren aurreko adjudikaziodunaren banakako historial medikoak, eta betiere, segurtasun-neurriak hartuko ditu, indarrean dagoen araudiak xedatutakoaren arabera, osasun datuak konfidentzialtasuna zaintzeko, bai historia medikoak egitean, bai estatistika arloan egin daitezkeen ustiapen guztietan (analisi epidemiologikoak eta abar). Giza baliabideak eta materialak: a) Osasun-azterketa kolektiboak **udal**		-MARCADORES TUMORALES (hombres mayores de 45 años): PSA -Vacunaciones: Hepatitis A y B, tétanos (según calendario vacunal). Administración de vacunas que se consideran necesarias de acuerdo con lo establecido en el punto 3 del artículo 8 del Real Decreto 664/1997, de 12 de mayo, sobre la protección de las personas trabajadoras contra los riesgos relaciones con la exposición a agentes biológicos durante el trabajo. 5.La empresa adjudicataria además deberá estar en disposición de: -Realizar analíticas especiales para determinados colectivos de personas trabajadoras, que quedarán establecidas en los protocolos específicos que se acuerden con el Ayuntamiento, en función del perfil de riego de cada puesto de trabajo. Dichas analíticas serán de los siguientes tipos: Análisis de hepatitis B (Anti HBsAg; Ac HBs; Ac HBc) Marcadores víricos VIH y pruebas toxicológicas. -Recoger en el informe de salud confidencial que se entregue a cada persona trabajadora, además de los resultados obtenidos en las distintas pruebas, las posibles alteraciones detectadas, consejos y recomendaciones para el cuidado de la salud, así como la indicación de la conveniencia de que la persona empleada acuda a determinado/s especialista/s. -Recibir y custodiar, en su caso, las historias médicas individuales de la anterior empresa adjudicataria del servicio de vigilancia de la salud y en todo caso, disponer en los términos establecidos por la normativa vigente, las medidas de seguridad necesarias para la preceptiva confidencialidad de los datos de salud tanto en la formación de las historias médicas como en toda suerte de explotación estadística (análisis epidemiológicos, etcétera). Medios humanos y materiales: a) Los exámenes de salud de carácter colectivo

aretoetan egingo dira, GGBBko Departamentuarekin adostutako egunetan eta baldintzetan. Gainontzekoak Enpresa adjudikazioduna titularra den osasun-zentroetan egingo dira. Osasun-zentroek OSALANek emandako baimen sanitario administratiboa eduki behar dute, eta **nahitaez Zarautzen edo Donostian egon behar dute.**		tendrán lugar **en dependencias municipales** en las fechas y condiciones acordadas con el departamento de RRHH. El resto de exámenes de salud tendrán lugar en centros médicos con autorización administrativa sanitaria emitida por OSALAN de los que sea titular la empresa adjudicataria y **ubicados necesariamente en Zarautz o San Sebastián.**
b) Osasun-zentro baimenduak Zarautzen dituztenen lizitazio-proposamenak baloratuko dira. Osasun-zentroaren kokalekuak ez du esan nahi, inondik ere, sustraitzearen irizpidea sartzen denik; aitzitik, ezinbesteko baldintza da kontratuaren bideragarritasunerako: udal langileen laneko osasun-azterketak ezin izango dira behar bezala eta denbora eta epe egokietan egin, baldin eta enpresak, bere egoitza soziala edozein izanda ere, ez badu Zarautz inguruan era horretako osasun-zentro baimendurik.		b) Se valorarán las propuestas de licitación que cuenten con centros médicos autorizados en Zarautz. La ubicación del centro médico en ningún caso supone introducir criterio de arraigo sino que es un requisito imprescindible para la viabilidad del propio contrato: no sería posible garantizar adecuadamente los exámenes de salud laboral de las personas empleadas en los tiempos y plazos adecuados si la empresa, sea cual sea su sede social, no tiene autorizados centros sanitarios de estas características en un entorno próximo a Zarautz.
c)Plegu hauetan zehaztutako funtzioak eta kontrolak bermatzeko behar diren baliabide tekniko guztiak izango dituzte osasun-zentroetako instalazioek. Adjudikazioduna arduratuko da instalazioak berritzeaz eta araudi aplikagarriak une bakoitzean eskatzen duenera egokitzeaz. Honako osasun-langile hauek izango ditu gutxienez: a) Laneko medikuntzan espezializatutako mediku bat. b) Enpresako erizain bat. Bi profesional horiek behar bezala identifikatuta egongo dira kontratuaren hasieran. Kontratuaren esparruan jarritako funtzioak betetzeko prestasun osoa edukiko dute, eta Zarauzko Udalaren erreferente izango dira alor horretan, baita lan agintaritza eskudunaren aurrean ere. Enpresa adjudikaziodunaren kontura izango da homologatutako audiometria neurgailua (kabina) ekarri eta jartzea.		c)Las instalaciones de los centros médicos deberán contar con todos los medios técnicos necesarios para garantizar las funciones y controles especificados en estos Pliegos, siendo por cuenta de la empresa adjudicataria su renovación y adaptación a lo que la normativa de aplicación exija en cada momento. El personal sanitario mínimo disponible será: a) Un/a médico especialista en medicina del trabajo. b) Un/a enfermera/o de empresa. Ambos profesionales deberán estar adecuadamente identificados al inicio del contrato, y deberán ostentar absoluta disponibilidad para desarrollar las funciones establecidas en el marco del mismo, siendo el referente del Ayuntamiento de Zarautz en la materia, incluso ante la autoridad laboral competente. Será a cuenta de la empresa adjudicataria el suministro y colocación de la cabina de audiometría.

B) ESPEZIALITATE TEKNIKOAK: Espezialitate teknikoen esparruan ere, urteko lan-proiektua idatziko du enpresa adjudikaziodunak, Udalean dagoen informazioa bildu ondoren. Giza Baliabideetako Departamentuaren laguntza izango du horretarako. Lanaren edukia: ***a)Laneko segurtasunaren alorrean:*** Prebentzio jardueraren kudeaketak honako ekintza hauek jasoko ditu gutxienez espezialitate honetan: 1.Aldez aurretik egin diren prebentzio jarduerei buruz Udalean dagoen informazioa aztertu. 2.Aholkularitza eman Zarauzko Udaleko Laneko Arriskuen Prebentzioko Plana eta prebentzio jardueretarako segurtasun prozedurak eta arauak berrikusi eta/edo eguneratzeko edo eta egiteko. 3.Lanpostuen arriskuen ebaluazioari buruz Udalean dagoen informazioa eguneratu eta berrikusi, eta laneko arriskuen hasierako ebaluazioa egiten jarraitu gelditzen diren lanpostuetan. 4.Prebentzioaren alorreko jardueren urteko programa prestatu, enpresarekin adostutako helburuen arabera. 5.Larrialdi eta ebakuazio planak egin eta martxan jarri, egin gabe duten eraikinetan, eta lehendik dauden planak berrikusi. Udal eraikinetan jarritako seinaleen segimendua eta kontrola egin, Autobabes Planen eta Segurtasun eta Larrialdi Neurrien arabera. Udal eraikinetan ebakuazio-simulakroak egin. Udal langileei etengabeko prestakuntza eman eduki horiei buruz eta lehen laguntzari buruz. 6.Edozein udal eraikinetako Prebentziozko Ekintzen Planifikazioa egin. Arriskuak		B) ESPECIALIDADES TÉCNICAS: También en el ámbito de las especialidades técnicas, la empresa adjudicataria redactará un proyecto de trabajo anual, una vez recabada la información que obra en el Ayuntamiento y para lo que contará con la colaboración del Departamento de Recursos Humanos. Contenido del trabajo: ***a)En materia de seguridad en el trabajo:*** La gestión de la actividad preventiva en esta especialidad deberá comprender, por lo menos, las siguientes actuaciones: 1.Análisis de la información disponible en el Ayuntamiento en relación con actividades preventivas realizadas con anterioridad. 2.Asesoramiento para revisión y/o actualización, y elaboración del Plan de Prevención de Riesgos Laborales del Ayuntamiento de Zarautz y los procedimientos y normas de seguridad para las actividades preventivas. 3.Actualización y revisión de la información disponible en el Ayuntamiento relativa a evaluaciones de riesgos de los puestos de trabajo y continuar con la evaluación inicial de riesgos laborales de los puestos de trabajo pendientes. 4.Elaboración de un Programa anual de actuaciones en materia preventiva según objetivos acordados con la empresa. 5.Elaboración e implantación de planes de emergencia y evacuación en los edificios pendientes y revisión de los planes existentes. Seguimiento y control de la señalización instalada en los edificios municipales según Planes de Autoprotección y Medidas de Seguridad y Emergencia. Realización de simulacros de evacuación en los edificios municipales. Formación del personal sobre el contenido de los mismos y sobre primeros auxilios. 6.Realización de la Planificación de la Acción Preventiva de cualquier edificio municipal. Para eliminar los peligros y controlar o reducir los riesgos es necesario establecer las prioridades que

kendu, kontrolatu edo murrizteko beharrezkoa da lehentasunak jartzea, neurri zuzentzaileak progresiboki jartzeko. Prebentziozko Ekintzaren Planifikazioak honako hauek eduki behar ditu: Arriskuen ebaluaziotik eratorritako prebentzio ekintzei buruzko txostena. Hauek sartuko dira: – Behar diren giza baliabideak eta bitarteko materialak – Baliabide ekonomikoak – Larrialdi neurrien eta lehen laguntzen koordinazioa – Osasunaren zaintza – Langileei eman beharreko informazioa – Langileen prestakuntza – Aldizkakotasuna zehaztuko da. – Lehentasunak jarriko dira. – Ikusitako akats teknikoak konpontzeko aholkularitza teknikoa. – Enpresari aholkularitza eta informazioa eman instalazioetan eta makinetan ikuskapen teknikoak egiteko beharrari buruz, araudi espezifikoen arabera. – Txosten batean zehaztuko dira prebentzio ekintzetan jarri beharreko lehentasunak, arriskuaren tamainaren arabera, arriskuan dagoen langile-kopuruaren arabera eta lege-xedapen espezifikoen arabera, eta ekintza horien jarraipena eta aldian aldiko ikuskapena ere zehaztuko da. 7.Hartutako neurri prebentiboen eraginkortasuna ikuskatu eta kontrolatu: Prebentzio Sistemaren mantentze- eta feedback-fasea da hau; alegia, aldian-aldian segurtasun-baldintzen ikuskapena eta/edo kontrola egin ahalko da. Nola? Laneko Arriskuen Ebaluazioaren eta Prebentziozko Ekintzen Plangintzaren segimendua eginez, konpondu den guztia identifikatzeko edo, konpondu gabe jarraitzen badu, gaia lantzeko. Berrikusi eta kontrolatu egingo da, baita ere, Prebentziozko Ekintzen Plangintzan aldez aurretik adierazitako neurrietatik zein jarri diren.		permitan la progresiva implantación de las medidas correctoras. La Planificación de la Acción Preventiva ha de incluir: Informe sobre las acciones preventivas derivadas de la evaluación de riesgos en el que se contemplen: - Los medios humanos y materiales necesarios. - La asignación de recursos económicos. - La coordinación de las medidas de emergencia y primeros auxilios. - La vigilancia de la salud. - La información a las personas trabajadoras - La formación a las personas trabajadoras - Se detalla la periodicidad en que se llevan a cabo. - Se establecen prioridades. - Asesoramiento técnico para la corrección de las deficiencias técnicas observadas. - Asesoramiento e información a la empresa sobre la necesidad de realizar inspecciones técnicas en instalaciones y maquinaria según reglamentaciones específicas. - Informe determinando prioridades en la adopción de las acciones preventivas, en función de la magnitud del riesgo, número de personas trabajadoras expuestas y disposiciones legales específicas, así como su seguimiento y control periódico. 7.Inspección y control de la eficacia de las medidas preventivas adoptadas: Esta es la fase de mantenimiento y retroalimentación del Sistema de Prevención, es decir, de forma periódica se podrán realizar inspecciones y/o controles de las condiciones de seguridad, que consisten en realizar un seguimiento tanto de la Evaluación de Riesgos Laborales como de la Planificación de la acción Preventiva con la finalidad de identificar todo aquello que se ha solucionado o bien incidir en el tema cuando este siga sin solucionarse y en los que se revise y controle la implantación de todas aquellas medidas preventivas que han sido previamente indicadas en la Planificación de la Acción Preventiva.

Laneko baldintzetan aldaketa nabarmenak gertatzen badira edo ikusten bada hartutako ekintza horietako bat ez dela eraginkorra, orduan aldaketa horrek eskatzen dituen neurri zuzentzaileak hartu eta jarriko dira.		Se procederá, además, en el caso de que se produjeran cambios sustanciales en las condiciones de trabajo, o se constate la ineficacia de alguna de las acciones adoptadas, a establecer e implantar aquellas medidas correctoras que dicho cambio aconseje.
Ikuskapenak eta kontrolak beste helburu bat ere badute: egoera arriskutsuak eta ekintza ez seguruak identifikatzea istripuak gertatu aurretik, neurri zuzentzaileak hartu ahal izateko halakorik gertatu ez dadin.		También tienen como finalidad la identificación de las condiciones peligrosas y actos inseguros, antes de que se desencadenen accidentes, permitiendo adoptar medidas correctoras que evitarán la posibilidad del suceso.
Ondoren, Eraginkortasunaren Ikuskapenaren eta/edo Kontrolaren Txosten Teknikoa egingo da.		Se deberá elaborar el correspondiente Informe Técnico de la Inspección y/o el Control de la Eficacia.
8.Langileei prestakuntza eta informazioa eman laneko arriskuen prebentzioaren alorrean. Langile guztientzako prestakuntza planak eta programak diseinatuko dira, lanpostu bakoitzaren berezko arriskuen eta babes-neurrien arabera, gutxienez urtero. Horiek aldian-aldian eguneratu eta egokitu beharko dira, laneko arriskuen heziketa eta prebentzio arloan izandako bilakaera zientifiko eta teknikoaren arabera. Prestakuntza espezifikoa ematea larrialdietarako izendatutako langileei. Prestakuntza espezifikoa ematea segurtasun eta osasun arloan funtzio eta ardura espezifikoak dituzten langile-taldeei. Bereziki baloratuko da prestakuntza hori udal eraikinetan egitea. Prestakuntza emango duten langileek prestatuta egon behar dute EAEko bi hizkuntza ofizialetan jarduteko.		8.Formación e Información del personal trabajador en materia de prevención de riesgos laborales. Diseño de planes y programas formativos para todas las personas trabajadoras según los riesgos propios de cada puesto de trabajo y las medidas de protección, como mínimo anualmente, que deberán estar y ser periódicamente actualizados y ajustados según la evolución científica y técnica en materia educativa y de prevención de riesgos laborales. Impartir formación específica para el personal designado para las emergencias. Impartir formación específica para otros grupos de personas trabajadoras con funciones y responsabilidades específicas en materia de seguridad y salud. Se valorará especialmente que esta formación se lleve a cabo en dependencias municipales. El personal que imparta formación deberá estar preparado para llevarla a cabo en las dos lenguas oficiales de la CAPV.
Prebentziozko informazioa planifikatu, landu eta ematea. Laneko arriskuen, prebentziozko neurrien eta segurtasun arauen fitxa edo eskuliburu informatiboa emango zaie langileei, lanpostu bakoitzak dituen arriskuen arabera. Prestakuntza hori maila eta bitarteko guztien bidez emango da, aurrez aurre edo urrutitik, planetan eta programetan zehazten diren informazio eta komunikazio teknologia berrien aukera guztiak aprobetxatuta, aldez aurretik Zarauzko Udalaren onespena		Planificar, elaborar y facilitar información preventiva, mediante fichas o manuales informativos de los riesgos laborales, medidas preventivas y normas de seguridad para las personas trabajadoras, según los riesgos existentes en cada puesto de trabajo. Impartir la formación a todos los niveles y medios, de forma presencial o a distancia, aprovechando todas las posibilidades de las nuevas tecnologías de información y comunicación que se especificarán en los planes y programas, previa aprobación del Ayuntamiento de Zarautz. Certificación de la información y formación impartida y tramitación de la documentación necesaria, incluso homologación

badute. Emandako informazioaren eta prestakuntzaren ziurtagiriak egingo dira, behar den dokumentazioa tramitatuko da, eta ikastaroen homologazioa ere egingo da. Ahaleginak egingo dira langileen parte-hartzea eta kontsulta, aholkularitza eta gaiaren lotutako lanak bultzatzeko.		de cursos. Contribuir a facilitar la participación y consulta de las personas trabajadoras, asesoramiento y trabajos relacionados en la materia.
Prozedurak landuko dira arriskuak komunikatzeko eta laneko arriskuen prebentzioa hobetzeko iradokizunak egiteko. Prebentzio arloan informazio zabaltzeko proposamenak egingo dira (triptikoak, kartelak, kanpainak, etab.).		Elaboración de procedimiento para comunicación de riesgos y sugerencias de mejora en prevención de riesgos laborales. Efectuar propuestas para difundir información en materia preventiva, trípticos, carteles, campañas, etc.
9.Segurtasun Koordinatzailerik behar ez duten udal obren dokumentazioa kontrolatu eta gainbegiratu.		9.Control y supervisión documental de las obras municipales en las que no sea necesario persona encargada de la Coordinación de seguridad.
10.Enpresa jardueren koordinazioa landu, jarri, segimendua egin eta kontrolatu, kontraten arloan Udalaren errealitatearekin bat etorriz.		10.Elaboración, implantación, seguimiento y control de las actividades de coordinación de actividades empresariales ajustado a la realidad del Ayuntamiento en materia de contratas.
11.Bajadun eta bajarik gabeko istripuak eta gaixotasun profesionalak aztertu; eta, ondorioz, arriskuen ebaluazioa eta prozedura ere berrikusi, behar bada, horiek aldatzeko edo eguneratzeko. Istripu-tasen azterketa egin.		11.Investigación de accidentes con baja y sin baja, y enfermedades profesionales, revisando en consecuencia la evaluación de riesgos y procedimiento, en su caso, a su modificación o actualización. Realización de estudios de accidentabilidad.
12.Lan-baldintzak aldian behin kontrolatu eta berrikusi, lantokiak, instalazioak eta laneko ekipoak ikuskatuta.		12.Realización de controles y revisiones periódicas de las condiciones de trabajo, a través de inspecciones de los lugares de trabajo, instalaciones y equipos de trabajo.
13.Lanpostu bakoitzeko Babes Ekipoen inbentarioa egin, eta laguntza teknikoa eman horiek erosteko/erabiltzeko prozeduran. Inbentarioa eguneratu eta kontrolatu.		13.Elaboración de inventarios de EPIs por puesto de trabajo y colaboración técnica en el procedimiento para su adquisición/ utilización. Actualización y control del inventario.
14.Laguntza teknikoa eta aholkularitza.		14.Asistencia técnica y asesoramiento:
Laguntza teknikoa eta aholkularitza honelako arloetan:		Asistencia técnica y asesoramiento en determinadas materias como las siguientes:
a)Lanpostuetan zereginak betetzeko behar diren babes-neurri kolektiboak, halakorik behar bada. Horiek aukeratu, jarri eta erabileraren kontrola egiteko aholkuak eman.		a)Medidas de protección colectiva que en su caso sean necesarias para el desempeño de las tareas en los puestos de trabajo, asesorando en su selección, implantación y control de uso.
		b)Equipos de protección individual necesarios

b)Lanpostuetan zereginak betetzeko behar diren banakako babes-neurriak. Horiek aukeratu, jarri eta erabileraren eta bete behar duten araudiaren kontrola egin. c)Udaleko Segurtasun eta Osasun batzordearen bileretara joan, aholkulari gisa (hala eskatzen zaionean). Udalaren esparruan laneko jazarpen sexual eta moralaren kontrako prebentzio neurriak eta jokabidea arautzeko erregelamendua berrikusteko lan-taldearen bileretan parte hartzea (hala eskatzen zaionean). d)Laneko agintaritzak egiten dituen bisitetan aholkularitza eta laguntza eman. e)Giza baliabide, baliabide material eta prestakuntza beharrak aztertu, arlo hauetan egin beharreko jarduerak planifikatzeko: lehen laguntzak, suteen aurkako borroka eta udal langileen ebakuazioa, txandaka, sekzioka edo departamentuka (Laneko Arriskuen Prebentzioko Legearen 20. artikulua). f)Laneko arriskuen prebentzioaren gaiarekin lotuta Udalak eskatzen dizkion txostenak egitea. Azterlan guztietan datuak sexuka banatuta emango dira, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko diferentziak identifikatu eta genero-adierazleak sartuko dira. ***b)Industria higienearen alorrean:*** Espezialitate honetan prebentzioaren kudeaketak honako ekintza hauek izango ditu gutxienez: 1.Osasunerako higiene arriskuaren ebaluazio kualitatiboa egingo da, ebaluazio espezifikorako eragile kimiko edo fisiko arriskutsuak identifikatu ahal izateko. 2.Higiene industrialaren alorrean ekintza zuzentzaileen programazioa egingo da, eta		para el desempeño de las tareas en los puestos de trabajo, asesorando en su selección, implantación, control de uso y normativa que tienen que cumplir. c)Asistencia a las reuniones del Comité de Seguridad y Salud del Ayuntamiento, en calidad de asesor/a (cuando dicha presencia sea requerida). Participar en las reuniones del grupo de trabajo para la revisión del reglamento regulador de la conducta y medidas de prevención contra el acoso sexual y moral en el trabajo en el ámbito municipal, cuando sea requerido para ello. d)Asesoramiento y asistencia en posibles visitas de las autoridades laborales. e)Análisis de las necesidades de medios humanos, materiales y de formación que se necesitan, con el fin de planificar la actuación en materia de primeros auxilios, lucha contra incendios y evacuación de las personas trabajadoras por turno, sección o departamentos responsables en el Ayuntamiento, (art. 20 de la Ley de Prevención de Riesgos Laborales). f)Elaboración de los informes sobre cualquier cuestión en materia de prevención de riesgos laborales que se le solicite por parte del Ayuntamiento. En todos los estudios se desagregarán los datos por sexos, se identificarán las desigualdades entre mujeres y hombres y se incorporarán indicadores de género. ***b)En materia de higiene industrial:*** La gestión de la actividad preventiva en esta especialidad deberá comprender, por lo menos, las siguientes actuaciones: 1.Realización de una evaluación del riesgo higiénico para la salud, de carácter cualitativo, que permita la identificación de agentes químicos o físicos peligrosos para su evaluación específica. 2.Realización de una programación de acciones correctoras en materia de higiene industrial, prestando el asesoramiento necesario para ello. Seguimiento periódico de la programación

horretarako beharrezko aholkularitza emango da. Egindako programazioaren jarraipena egingo da aldian behin. 3.Ebaluaziotik etorritako jarduera prebentiboen jarraipena eta balorazioa egingo da. 4.Produktu bakoitzeko arrisku fitxak prestatuko dira. Langileei prestakuntza eta informazioa emango zaie. 5.Arrisku higienikoekin kontaktua dakarten lanak egiteko jarraibideak, prozedurak eta segurtasun arauak finkatuko dira. 6.Higiene industrialarekin loturiko istripu eta gaixotasun profesionalak ikertuko dira. 7.Jarraipenerako ebaluazio higienikoak egingo dira aldian behin. 8.Aholkularitza profesional espezializatua emango da antzematen diren arrisku higieniko fisiko edo kimikoen aurrean jokatzeko. Ebaluazio horietan guztietan "sexu" aldagaia sartuko da, agente askok eta askok desberdin eragiten dutelako gizonezko eta emakumezkoengan ehun adiposoaren banaketaren arabera, ezaugarri hormonalen arabera... ***<u>c)Ergonomiaren eta psikologia aplikatuaren alorrean:</u>*** Espezialitate honetan prebentzioaren kudeaketak honako ekintza hauek izango ditu gutxienez: 1.Arrisku ergonomiko psikosozialen lehen ebaluazio kualitatiboa: elementu arriskutsuak identifikatzea espezifikoki ebaluatuak izan daitezen, betiere kontuan izanik gizonezkoen eta emakumezkoen artean egon daitezkeen diferentziak. 2.Arrisku ergonomiko zehatzen ebaluazio ergonomikoa: zama fisikoa, ingurumen-baldintzak,...		realizada. 3.Realizar la actividad de seguimiento y valoración de la implantación de las actividades preventivas derivadas de la evaluación. 4.Elaboración de fichas de riesgo por producto. Formación e información a las personas trabajadoras. 5.Elaboración de instrucciones, procedimientos y normas de seguridad para la realización de tareas que impliquen el contacto con riesgos higiénicos. 6.Investigación de accidentes y enfermedades profesionales relacionadas con la higiene industrial. 7.Realización de evaluaciones higiénicas periódicas de seguimiento. 8.Asesoramiento profesional especializado ante la identificación de cualquier posible riesgo higiénico físico o químico. En todas estas evaluaciones se incorporará la variable "sexo", ya que muchos agentes tienen efectos diferentes sobre hombre y mujeres en función de la distribución del tejido adiposo, características hormonales, etc. ***<u>c)En materia de ergonomía y psicosociología aplicada:</u>*** La gestión de la actividad preventiva en esta especialidad deberá comprender, por lo menos, las siguientes actuaciones: 1.Evaluación inicial cualitativa de riesgos ergonómicos y psicosociales: identificación de elementos peligrosos para su evaluación específica, teniendo siempre en cuenta las posibles diferencias entre mujeres y hombres. 2.Evaluación ergonómica de riesgos ergonómicos específicos: carga física, condiciones ambientales, etc. 3.Evaluación de riesgos psicosociales, teniendo también en cuenta los roles de género. Evaluación

3Arrisku psikosozialen ebaluazioa, generoaren rolak ere kontuan izanik. Indarkeria matxistarekin lotutako arriskuen ebaluazioa: sexu-jazarpena eta jazarpen sexista. Ekintza zuzentzaileen programazioaren jarraipena egingo da aldian behin, aurreikusitako epeak bete egiten direla egiaztatzeko. 4. Ergonomiaren eta psikosoziologia aplikatuaren inguruan langileei prestakuntza emango zaie. 5. Jatorri psikosozialeko gatazka eta arazoetan esku hartuko da, horien arrazoiak diagnostikatuz, gatazka horiek konpontzeko sistema diseinatuz, kanpoko bitartekotza eskainiz eta abar, laneko jazarpenaren prebentziorako protokoloa aplikatuta. Antzemandako hiru gatazka esparrutan gutxienez esku hartzea aurreikusten da. Beharrezkoa den kasuetan bakarkako elkarrizketak ere egingo dira. 6.Jatorri psikosozialeko gatazketan bitartekari izateko enpresak izendatutako pertsonei prestakuntza espezifikoa emango zaie. Hala badagokio, Udalarentzat bitartekotza protokolo bat egingo da. 7.Ergonomiarekin eta psikosoziologia aplikatuarekin loturiko laneko gaixotasunen eta istripuen ikerketa egingo da. <u>Giza baliabideak</u>: Kontratu hau gauzatzeko adjudikaziodunak honako giza baliabide hauek, gutxienez, jarri beharko ditu Udalaren eskura: **a)Laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako teknikari bat.** Prebentzioko hiru espezialitate edo diziplina hauetan goi-mailako zereginak aurrera eramateko beharrezko kualifikazioa izango du pertsona horrek, Prebentzio Zerbitzuen Araudiaren 37.2 artikuluak aurreikusitakoaren arabera betiere. Horixe izango da izendatutako teknikaria, eta Udaletxean egon beharko du, astean gutxienez 14 orduz. Udaleko giza baliabideetako arduraduna izango da bere		de riesgos ligados a la violencia machista: el acoso sexual y sexista en el trabajo. Seguimiento periódico de la programación de acciones correctoras para verificar el cumplimiento de los plazos previstos. 4.Formación e información a las personas trabajadoras en materia de ergonomía y psicosociología aplicada. 5.Intervención en conflictos y problemáticas con origen psicosocial, diagnosticando las causas del mismo, diseñando un sistema para la resolución de éstos, prestando actividad de mediación externa, etcétera en aplicación del protocolo para la prevención del acoso laboral. Se prevé la intervención en al menos, tres/cuatro focos de conflicto identificados. Realización también de entrevistas individuales en los casos en los que así se requiera. 6.Impartición de la formación específica para las personas designadas por la empresa para la mediación en conflictos de origen psicosocial. Realizar, en su caso, un protocolo de mediación para el Ayuntamiento. 7.Investigación de las enfermedades profesionales y accidentes de trabajo relacionados con la ergonomía y la psicosociología aplicada. <u>Recursos humanos</u>: Para la ejecución del presente contrato, la empresa adjudicataria deberá poner a disposición del Ayuntamiento, como mínimo, los siguientes recursos humanos: **a)Personal técnico superior en prevención de riesgos laborales**, que cuente con la cualificación necesaria para el desempeño de las funciones de nivel superior en cada una de estas tres especialidades o disciplinas preventivas, de acuerdo con lo previsto en el artículo 37.2 del Reglamento de los Servicios de Prevención. Será la persona técnica asignada y además del trabajo que desarrolle en las instalaciones del Servicio de Prevención, deberá estar presencialmente en el Ayuntamiento al menos 14 horas por semana. Tendrá como interlocutora principal a la responsable de Recursos Humanos del

solaskide nagusia.		Ayuntamiento de Zarautz.
b)Proiektuaren koordinatzaile tekniko bat. Horrek bere gain hartuko du proiektuaren azken erantzukizuna eta solaskide lanak egingo ditu udal arduradunekin mailarik gorenean (programaziorako irizpide teknikoak ezartzen, kontratuaren garapenean gerta daitezkeen gorabeherak konpontzen eta abar), eta berehalako prestutasuna izango du lan hori aurrera eramateko.		**b)Personal técnico coordinador del proyecto**, que asuma la responsabilidad final del proyecto y realice funciones de interlocución con los/las responsables municipales al máximo nivel (establecimiento de criterios técnicos de programación, resolución de incidencias en el desarrollo del contrato, etc.), y que ostente accesibilidad inmediata para llevar a cabo dicha labor.
c)Psikosoziologia espezialitateaz arduratuko den goi mailako teknikari bat, psikologiako lizentziatua edo graduatua, arlo honetan 8 urteko esperientzia duena. Arrisku psikosozialen Prebentzio Plana prestatu, idatzi eta jarraipena egingo du.		**c)Personal técnico superior responsable de la especialidad de Psicosociología, Licenciada o Graduada en Psicología**, con 8 años de experiencia en la materia. Elaboración, redacción y seguimiento del Plan de Prevención de Riesgos Psicosociales.
Orokorrean, a) edo c) ataleko teknikariek, Prebentzio Zerbitzuko instalazioetan egiten duen lanaz gainera, Udalean bertan astean 14 orduz emango dute zerbitzua (orduak euren artean zerbitzuaren beharren arabera banatuta).		Con carácter general, el personal técnico del apartado a) o c), además del trabajo que realiza en las instalaciones del Servicio de Prevención, prestarán servicio en el propio Ayuntamiento 14 horas semanales (distribuidas entre ellos en función de las necesidades del servicio).
Dedikazioaren banaketa gutxi gorabehera honakoa izango da: Seguritatea %60 Psikosoziologia %30 Higiene industriala %10		La distribución de la dedicación será aproximadamente la siguiente Seguridad 60% Psicosociología 30% Higiene industrial 10%
Kontratu honetan beharrezkoak diren ekintza prebentiboak eta neurketak egiteko baliabide tekniko guztiak jarriko ditu adjudikaziodunak, eta horien artean honakoak ezinbestekoak izango dira:		En cuanto a los medios técnicos, la empresa adjudicataria deberá aportar los necesarios para realizar las actividades preventivas y mediciones necesarias en el marco de este contrato, entre los cuales deberán figurar, necesariamente los siguientes:
-Eremu elektromagnetikoen neurgailua -Eremu elektrostatikoen neurgailua -Soinu eta bibrazioen aztergailua -Sonometroak eta sonometroen kalibragailua -Luxmetroak -Zarata dosimetroak eta dosimetroen kalibragailua -Estres teknikoaren neurgailuak -Ponpa xurgatzaileak, emari handirako		-medidor de campos electromagnéticos -medidor de campos electroestáticos -analizador sonoro y de vibraciones -sonómetros y calibrador de sonómetro -luxómetros -dosímetros de ruido y calibrador de dosímetro medidores de stress térmico -bombas de aspiración y bomba para alto caudal y caudalímetro de bomba -medidores de gases combinados -medidores de temperatura, humedad, velocidad

ponpa eta ponpen emari-neurgailua
-Gas konbinatuen neurgailuak
-Tenperatura, hezetasun, airearen abiadura, CO^2, globo zunda neurgailuak
-Txostenak editatzeko programa informatiko egokiak
-Kamera digitalak eta dagozkion lanak egiteko beharrezko den beste edozein ekipamendu

Ekipo guztietan beharreko berrikuspenak, kalibrazioak eta kontrolak egingo dira egoera onean edukitzeko, aplikatu beharreko araudiaren arabera betiere. Erabili ezin direnak berrituko ditu adjudikaziodunak eta horrek ez dio inolako kosturik eragingo Udalari.

Baliabide materialak

Laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako teknikariak eta psikosoziologia espezialitateaz arduratuko den goi mailako teknikariak Udalean bertan zerbitzua emango dutenez, Zarauzko Udalak horretarako espazioa, mahaia eta aulkia emango die.

Lanerako eta udaleko langileekin harremanetareko behar dituzten bulego materialak, telefonoa, material informatikoak, ekipoak, telefonoak, inpresio lanetarako gailurak edota antzekorik ez da adjudikaziodunaren esku jarriko. Kontratua bete behar duenak, zerbitzuak hala behar izanez gero, bere baliabide material propioak jarriko ditu.

Horrez gain, arlo psikosozialean langileei zerbitzu zuzena eta egokia ematen zaiela bermatzeko, enpresak harremanetarako email bat zehaztuko du, zeina udal langileei helaraziko zaien, psikosoziologia espezialitateaz arduratuko den goi mailako teknikariarekin zuzenean harremanetan jartzeko aukera izan dezaten.

Plantillako langileen lanlekuen zerrenda:

Eraikina	Helbidea	Enplegatutako langile kopurua (*)

del aire, CO^2, sonda globo
-programas informáticos adecuados para la edición de los informes correspondientes
-cámaras digitales y cualquier otro equipamiento necesario para acometer las tareas correspondientes

Todos los equipos estarán sometidos a las revisiones, calibraciones y controles necesarios para mantenerlos en correcto uso según la normativa de aplicación; la empresa adjudicataria repondrá los que pudieran quedar fuera de uso sin repercutir coste alguno al Ayuntamiento.

Recursos materiales

Dado que el personal técnico tanto de prevención de riesgos laborales y como la persona responsable de la especialidad de psicosociología prestarán servicio en el propio Ayuntamiento, el Ayuntamiento de Zarautz les facilitará espacio, mesa y silla.

No están a disposición de la empresa adjudicataria el material de oficina, telefono, material y equipos informático, dispositivos de impresión, etc. que precisen para su trabajo. La empresa adjudicataria aportará, en caso de necesidad del servicio, sus propios medios materiales.

Adicionalmente, con el fin de garantizar el correcto y adecuado servicio al personal trabajador en el ámbito psicosocial, la empresa establecerá un email de contacto que se trasladará al personal trabajador municipal para que puedan contactar directamente con el personal técnico superior responsable de la especialidad de Psicosociología.

Relación de centros de trabajo de personal de plantilla:

Edificio	dirección	personal empleado (*)
Casa	Zigordia	50

Udaletxea	Zigordia kalea, 13	50
Etxezabala-udal bulegoak	Kale Nagusia, 29	46
Gizarte Zerbitzuak	Zigordia kalea, 33	17
Kultur Etxea (Sanz-Enea)	Nafarroa kalea, 22	9
Turismo Bulegoa	Kale nagusia, 30	8
Gaztelekua eta Zinema frontoia	Zigordia kalea, 34	5
Udaltzaingoa	Gipuzkoa kalea, 32	48
Kiroldegia	Araba kalea, 20	9
Euskaltegia	Iturribidea 28-30	15
Obretako brigadaren biltegia	Zubiaurre zahar kalea, 1	19
Emakumeen* etxea	Nafarroa kalea 3, behea	3
Orokieta ikastetxea	Araba kalea, 56	2
Orokieta ikastetxea	Pagoeta kalea, 6	1

(*****) Langileen kopurua %10 handitu edo gutxitzeak ez die kontratuko baldintzei eragingo.

Era berean, badira Zarauzko Udalaren jabetzakoak diren higiezin batzuk, une honetan ez badira ere, kontratuan zehar udal-langileak dituzten lantoki bihur daitezkeenak, eta, kasu horretan, kontratu honen xedearen barruan egongo dira.

3.- UDAL ARDURADUNEN JARDUNA

Administrazioak dituen eskumen orokorrez

Consistorial	kalea, 13	
Etxezabala-oficinas municipales	Kale Nagusia, 29	46
Servicios Sociales	Zigordia kalea, 33	17
Kultur Etxea (Sanz-Enea)	Nafarroa kalea, 22	9
Oficina de Turismo	Kale Nagusia 30	8
Gazteleku y fronton Zinema	Zigordia kalea, 34	5
Policía municipal	Gipuzkoa kalea, 32	48
Polideportivo	Araba kalea, 20	9
Euskaltegi	Iturribidea 28- 30	15
Almacén brigada de obras	Zubiaurre zahar kalea, 1	19
Emakumeen* etxea	Nafarroa kalea 3, behea	3
Colegio Orokieta	Araba kalea, 56	2
Colegio Orokieta	Pagoeta kalea, 6	1

(*****) El aumento o disminución en un 10% en el número de personal empleado no afectará a las condiciones del contrato.

Existen asimismo inmuebles propiedad del Ayuntamiento de Zarautz, que aunque no lo sean en este momento, a lo largo del contrato pueden convertirse en centros de trabajo con personal municipal, en cuyo caso estarán comprendidos dentro del objeto del presente contrato.

3.- ACTUACIÓN DEL PERSONAL RESPONSABLE MUNICIPAL

Sin perjuicio de las prerrogativas generales de la

gain, zerbitzuaren zuzendaritza orokorrari dagokionean, Udaleko giza baliabideen arduraduna arduratuko da kontratuaren zaintza orokorraz eta kontratua behar bezala gauzatzeko aginduak emateaz. Horren haritik, adjudikazioa erabaki ondoren, kanpoko prebentzio zerbitzuak 2021 ekitaldirako lan plana aurkeztuko dio giza baliabideetako arduradunari. Helburu eta kronograma egokiak jasoko dira lan plan horretan.		Administración en lo que a la dirección general del servicio se refiere, la vigilancia general del contrato y el otorgamiento de instrucciones generales para la ejecución y buen fin del mismo radican en la responsable de Recursos Humanos del Ayuntamiento de Zarautz. En este sentido, acordada la adjudicación, el servicio de prevención ajeno presentará a la responsable de Recursos Humanos un plan de trabajo para el ejercicio 2021 que incluirá objetivos y cronograma adecuados.